Arizmendi ikastola · arrasate Herri Eskola · Mesedeetako Andra Maria Ikastetxea

**43. alea**
**2006-Azaroa**

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN




**4. 5. eta**
**6. maila**

# TELEBISTAri begira

Egunero gure denboraren zati bat erabiltzen dugu telebistari begira. Hori dela eta, telebista aparatu garrantzitsu bihurtu da gure bizitzan.

**Gogoko al duzu telebista?**

**Egunero egoten al zara telebistari begira? Zenbat denbora ematen duzu?**



**Zerrendatu itzazu gogoko dituzun programak:**

-
-
-
-
-

# GURE PROTAGONISTAK

Telebistan ikusten ditugun telesail eta marrazki bizidunetan protagonistak eta protagonista ez direnak izaten dira.
Zer telesail, programa edo marrazki bizidun duzu gogokoen?

Bereizi itzazu aukeratu duzun telesail horretako PROTAGONISTA eta PROTAGONISTA EZ DENA. Azaldu itzazu haien jarrera onak eta txarrak.

**Protagonistak**

**Jarrera onak**

**Jarrera txarrak**

**Ez protagonistak**

**Jarrera onak**

**Jarrera txarrak**

# ETXEAN TELEBISTAREN AURREAN

Umeak imitazioaren bidez ikasten du, eta bizitzako lehen urteetan ereduak behar izaten ditu. Etxean gurasoek telebista ikusten badaude, seme-alabek ere telebista ikusteko joera izan ohi dutela.

Euskal Herrian biztanle bakoitzak hiru ordu eta erdi inguru ikusten du batez beste telebista egunean, eta nahiz eta haurrek hainbeste ordu ez pasatu pantaila txikiaren aurrean, euren hazkundean kaltegarria bilaka daiteke.

*Los niños y niñas aprenden a través de la imitación, por ello necesitan referecias. Si los padres y madres ven la televisión en casa, normalmente los hijos e hijas tendrán la misma tendencia.*

*En Euskal Herria, de media cada habitante suele verla televisión aproximadamente tres horas y medio por día. Aunque los niños y niñas no la vean durante tanto tiempo, la televisión puede ser perjudicial para el crecimiento.*

Lantzeko proposamena: *Propuesta de trabajo*

1. Aukeratu ezazue seme-alaben eta gurasoen artean gogoko duzuen programa bat:
   *Escoger un programa entre los hijos y las hijas y los padres y madres*

2. Egiezu txalo edo txistu elkarrekin ikusi eta hor agertzen diren jarrerei:
   *Ver junto/as y aplaudir o criticar los actitudes que aparezcan.*

| **TXALOAK** *aplausos* | **TXISTUAK** *abucheos* |
| --- | --- |
| | |



# Gurasoen txokoa

Haurra telebistari begira egotekotan, komeni da gurasoekin batera egotea. Umeak mugimendua eta jolasa behar ditu, eta adituek diotenez, telebistak egoera pasiboan jartzen zaitu.

Telebista kaltegarria izan daiteke irudimenerako. Gaitasun horren oinarria txikitan prestatzen da, edo alferrik galtzen da. Haurrak askotan telebistako irudiekin doaz ohera, eta irudi horiek eragiten die zenbaitetan hiperaktibitatea eta gaizki lo egitea.

*Es conveniente que los hijos y las hijas vean la televisión con los padres y las madres.Según algunos entendidos, la televisión incita a la actitud pasiva y los niños y las niñas necesitan movimiento y juegos.*

*La imaginación hay que elaborarla en la infancia, sino ésta no se desarrolla. La televisión puede ser perjudicial para la imaginación: puede que las niñas y los niños vayan a la cama con las imágenes retenidas y a veces, estas imágenes pueden provocar hiperactividad y mal sueño.*







Gaurko egunean, telebistan oso azkar doaz irudiak, eta horietako asko eta asko oso oldarkorrak dira. Zero eta zazpi urte bitarteko umeei beste aukera batzuk eskaini behar dizkiegu: natura, ipuin egokiak, musika eta antzerkia, adibidez.

*Hoy en día, las imágenes de la televisión son rápidas y agresivas. A los crios y a las crias hay que ofrecerles otros medios de divertimiento; naturaleza, cuentos, música, teatro...*

Koordinatzailea:

urtxintxa
eskola

Babeslea:

ARRASATEKO UDALA